



3 GIZARTEA

**Lasarte-Oriatarrak genero indarkeriaren aurka**

Ostiralean, genero indarkeriaren aurkako eguna zen, azaroaren 25a. Eguerdian elkarretaratze jendetsua izan zen Okendo plazan. Ostean, herritarrek gaia urte osoan zehar presente izateko, Ganbo kalean, banku bat morez margotu zen. Egitarauak aurrera darrai eta aste honetan ere bi ekitaldi izango dira, Iratxe Alvarezen hitzaldia asteartean eta ekimenei amaiera emateko, ostiralean Makelur taldeak 'La eterna juventud' antzerkia eskainiko du.



Plazan bildutako lasarte-oriatar gazte zein helduek apaindu zuten herri galdeketa data iragartzen zuen oihal zatia.

# Maiatzaren zazpian herri galdeketa

Gure Esku Dagok larunbatean eman zuen ezagutzera kontsulta egunaren data

Geroz eta gertuago du Lasarte-Oriak erabakitze eskubidearen alde herri galdeketa egiteko eguna. Larunbatean, Okendo plazan egindako ekitaldian eman zuten ezagutzera data. Haur eta heldu, guztiek elkarrekin parte hartu zuten larunbateko deialdian.

**M**aiatzaren zazpia egun handia izango da Lasarte-Oriatarrentzat. Izan ere, erabakitze eskubidearen aldeko herri galdeketa egingo da egun horretan, gure herrian.

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak larunbatean jakinarazi zuen galdeketarako data Okendo plazan egindako ekitaldian. Eguerdiko hamabietarako herritar ugari bildu ziren plazan jarritako postuetan. Gaztetxoek, oihala apaintzeko eskulanetan aritu ziren bitartean, helduak,

mokadutxoak jateko postuaren inguruan bildu ziren.

Hamabi eta erdiak pasatxo agertu ziren patinatzaileak. Galdeketaren hilabetea iragartzen zuen tela eskuan zutela sartu ziren Okendon eta minutu gutxietara, eguna zehazten zuen oihal zatia ekarri zuten, bizikletaz, hiru herritarrek.

Data jakinda, oihala josi, apaindu eta plazako agertokian zintzilikatu zuten. Ekitaldia amaitzeko, idatzi bat irakurri eta talde argazkia atera zuten.



Patinatzaile eta txirrindulariek ekarritako bi oihalak josi zituzten plazan.



Oihala josita, plazan bildutako gaztetxoek koloretako eskuak itsatsi zituzten telan.



4 LITERATUR SARIAK

**Aurtengo literatura lehiaketak baditu sarituak**

Literatur lehiaketari amaiera emateko sari banaketa egin zen larunbatean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Haur eta gazteen XXIX. lehiaketa izan da aurtengoa eta helduen XXX. edizioa. Pablo Neruda poeta ezagunaren idatzi batekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari. Horrekin batera, bi mikrokontakizun ere entzun ahal izan ziren ekitaldia hasi eta berehala. Haur eta gazteak saritu zituzten lehenik eta hauen ostean, helduen sari banaketa egin zen.

**Josue Igeltseritza**  
 Igeltseritza orokorra  
 Fatxaden estaldurak  
 Estalkien berriztatzeak  
 Barruko berrikuntzak  
 Gremioen koordinaketa  
 606 37 21 05  
 Atallu pol. atallu, 28 USURBIL  
 josueigeltseritza@euskalnet.net

**Miele etxearen banatzaile ofizialak gara: bitzta osorako etxetresnak**

**ELECTRICIDAD ARREGUI**  
 600 857 586  
 www.electricidadarregui.com

**ONTZI-GARBIGAILUA**  
 • Aurreztu "A+" eraginkortasun energetikoarekin  
 • ComfortClose erabilera erosoa  
 • Miele saskien diseinu berria: gauza bakoitza, bere lekuan!  
 • Haurrentzako blokeoa

**GARBIGAILUA**  
 • Softtronic danbor inoxidablea (7kg arte)  
 • Aurreztu "A++" eraginkortasun energetikoarekin  
 • 1.400 r/min zentrifugatua  
 • Detergente kaxa autogarbitzailea

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak  
 Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



## ATERPEA

## Tabernaz taberna, pintxoaz pintxo

### Zortzi mokadu dastatu ahal izan zituzten herritarrek asteburuan

Lasarte-Oriatarrek pintxo goxo askoak dastatu dituzte asteburu osoan zehar, Aterpeak antolatutako IV. Pintxo Ibilbidean. Tabernaz taberna ibili eta euren ustez onena zein den erabakitzen ere ibili dira. Hori egin zuen Martin Berasategui sukaldariak ere, ostiral goizean egindako dastaketa-ekitaldian.

**A**steburuan, IV. Pintxo Ibilbidea ospatu zen Lasarte-Orian. Aterpea Merkatarien Elkarteak eta herriko Udalak antolaturiko ekimenean, Buenetxea, Viña del Mar, Yolanda, Izurde, Arkupe eta Lasarte taberneak, Lavie gastrotekak eta Goiegi jatetxeak hartu zuten parte aurtengo edizioan.

Herritarrek beraz, zortzi pintxo probatzeko aukera ezin hobea izan zuten ostiraletik igandera bitarte. Aurtengo bi mokadu sarituak aste honetan emango dituzte ezagutzera.

#### “Guztiok merezi duzue Martin Berasategui saria”

Martin Berasategui sukaldariak aurtengo ibilbideko zortzi pintxoak dastatu zituen, udal-letxe berrian antolatutako ekitaldian. Iazko edizioan, ‘Martin Berasategui’ saria ere ematea erabaki zuten antolatzaileek. Aurtengoa, beraz, bigarren aldia izango da. Iaz Sancho tabernak irabazi zuen.

“Maila bikaina daukate pintxo guztiek, edizioz edizio hobetzen ari dira”, nabarmendu zuen sukaldariak. “Saria guztiok merezi duzue; aurten epaimahaikide izan naizen



Martin Berasategui sukaldariak aurtengo ibilbideko zortzi pintxoak dastatu zituen ostiral eguerdian.

lehiaketa guztiak gogora ekarrita, honetan edukiko ditut irabazlea aukeratzeko zalan-tza gehien, eta ez dut konplizteagatik esaten”. Saridunak (Martin Berasategui eta herriaren saria dira bi garaikurrak) abenduaren 2an jakinaraziko dituzte antolatzaileek.

Berasategui Bartzelonan daukan ‘Lasarte’ jatetxeak hirugarren Michelin izarra irabazi du berriki; “Hiru izar edukitzea baino zailagoa da Pintxo Ibilbide honetan nor sarituko dudana aukeratzeko!”.




Herriko zortzi tabernatan pintxo bereziak dastatu ahal izan zituzten.

## CNT sindikatuaren historian murgilduz

**1**936an Andaluziako landa eremuan 6 orduko lanaldia lortu zuen CNT sindikatuak. Hau eta sindikatuari buruzko beste hainbat bitxikeria ezagutu zituzten ostegunean Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretora hurbildu ziren herritarrek. Izan ere, ‘Memoria Viva’ CNT sindikatuaren historia laburtzen duen dokumentala izan baitzen ikusgai.

Dokumentalean 80 bat sindikalisten testigantzen bitartez, 1910 urtetik gaur egunera ‘Confederación del Trabajo’ sindikatuak bizi izan dituen gorabehera eta borrokaldi ezberdinak errepasatzen dira.



CNTko sindikalisten testigantzetan oinarritzen da ‘Memoria Viva’ dokumentala.

Era berean, sindikalista horiek garai ezberdinetan izan zituzten itxaropenei eta ilusioei buruz mintzatzen dira. Etorkizunari buruzko

gogoeta ere egiten da ‘Memoria Viva’-n.

Ikustaldia amaitzean herritar eta sindikatuko kideek solasaldia egin zuten.

## Ahal Du Lasarte-Oria Puede-ko kideak auzoen beharrak ezagutzera aterako dira

**A**hal Du Lasarte-Oria Puede’ hautesle-elkarteko kideek 2017ko aurrekontuetan lanean daudela adierazi dute.

Hau dela eta hiritar guztientzako bilera irekiak antolatuko dituzte proposamenak jasotzeko asmoarekin. Herrian dauden auzo-elkarte guztiekin harremanetan jartzen hasi dira eta dagoeneko lehen saioa zehaztu dute.

Auzo bakoitzean dauden arazoak eta beharrak zuzenean ezagutzeko da xedea, eta era berean, aurrekontuetan islada ematea hauei.

Lehenengo bilera Oriako La Esperanza auzo-elkartearekin


izango da. Hitzordua ostegunean, abenduaren 1ean jarri dute elkartearen egoitzan, Basaundi Bailara 8 behea, 19:00etan.

“Behetik gorantz, jendearengandik eta jendearentzat egin behar da politika gure ustez eta horrexegatik auzotar guztiak joatera eta parte hartzera gonbidatzen ditugu”.

Saio hauen inguruan informazio gehiago nahi duenak [LasarteOriaPuede.info](http://LasarteOriaPuede.info) webgunean, [contacto@lasarteoriapuede.info](mailto:contacto@lasarteoriapuede.info) helbidean edota 608 972979 zenbakira deituta eskura dezake.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

#### Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

**943 366 858/943 371 448**

G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintxarri

#### Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz



## GIZARTEA

## Genero indarkeriaren aurka

Ostiralean egitarauari amaiera emango diote

Elkarretaratzea eta banku bat morez margotu ziren ostiralean urte osoan zehar emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako mezua presente egon dadin. Plazan egindako ekitaldian, gogoan izan zituzten estatuan hildako 41 emakumeak.



Ostiraleko ekimenetan lasarteoriatarrek haien gaitzespena erakutsi zuten.

## TXINTXARRI

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, azaroak 25, hainbat izan ziren gurean egindako ekintzak.

Aste guztian zehar gaia lantzeko helburuarekin izan da egitarau berezia eta ostiralean elkarretaratze jendetsua izan zen.

Elkarretaratzea Okendo plazan egin zen eguerdian eta modu sinbolikoan aurten bere bikoteek eraildako emakume bakoitzeko zapata pare gorri bat jarri zuten, guztira 41. Hauetan izena eta adina zehaztuz.

## Eskutitza erasotzaileari

Isiluneari hasiera eman aurretik, emakume batek erasotzaile bati prestatutako eskutitza irakurri zuen.

"Ezin nuen isilik jarraitu, badakit gaixo bat zarela baina

horrek ez du justifikatzen egiten ari zarena eta egin duzuna. Momentu batzuetan badakizu zer egiten ari zaren baina nahiago duzu estali. Beldurra ematen dizu konturatzea zein pertsona motan bilakatu zaren".

Honen ostean, bost minutuko isilunea egin zen eta txaloeekin eman zitzaion amaiera. Jarraian, udal ordezkari zein emakumeen zentroko kideetako batzuk

Ganbon bankua morez pintatu zuten.

Honen helburua, urte osoan zehar indarkeria mota honen kontrako borroka prentse egotea da. Hala egin zuten ere bularreko minbiziaren egunean banku bat arrosaz koloreztatu.

Baina ez dira ekintzak amaitu, asteartean Iratxe Alvarezen hitzaldia izango da eta ostiralean, Makelur taldearen antzerkia.

## GIZARTEA

## Fernandez Iradiren epaia abenduaren 15ean



Azaro hasieran mahai-ingurua antolatu zuen Lasarte-Oriako Sarek.

Abenduaren 15ean jakinaraziko du Parisko Zigorren Ezartzeko Auzitegiak Ibon Fernandez Iradi euskal preso aske uzten duen. Ostegunean bi ordu eta erdiko saioa egin zuen aipatu epaitegi horrek, eta Berriak jakinarazi duenez, prokuradoreak zigor etete eskaera atzera botatzeko eskatu zuen.

Azaro hasieran Manuel Lekuona kultur etxean egindako mahai-inguruan, Ibon Fernandez Iradiren abokatu Maritxu Paulusek zioen Gabonetarako jakingo zela beharbada herritarraren zigor eteteari buruzko erabakia.

Pixka bat aurreratuko dela dirudi, Parisko Zigorren Ezartzeko Auzitegiak

abenduaren 15ean jakinaraziko du epaia eta larriki gaixo dagoen euskal presoak, esklerosi anizkoitza dauka, espexetik ateratzen den edo ez jakingo du.

Berria egunkariko lankideek jakinarazi zuten, bi ordu eta erdiko saioa egin zuen ostegunean Parisko Zigorren Ezartzeko Auzitegiak eta prokuradoreak zigor etetearen aurka egin zuen.

Lannemezango espexean (Frantzia) dago Ibon Fernandez Iradi gaur egun. Joan den urtean Zigorren Ezartzeko Epategiak ebatzi zuen bere espexealdia eta gaixotasunaren tratamendua bateragarriak zirela, baina kasazio auzitegiak baliorik gabe utzi eta agindu zuen kasua berriro aztertzeko.

## XXIV. jaiotza lehiaketa martxan

Danok Kide elkarteak ohiturari jarraikiz, jaiotza lehiaketa antolatu du. Adinaren arabera lau taldetan banatuko dira lanak. Talde bat 6 eta 9 urte bitartekoena izango da, bigarrena, 10 eta 13 urtekoena, 14 urtetik eta 17 urterakoena hirugarrena eta azkenik, 18 urtetik gorakoena.

Sariei dagokionez, lehenengo taldean lehenengoarentzat 60 euro eta bigarrenarentzat 40 euro emango dira, bigarrenean 70 euro eta 50 euro, hirugarren taldean 90 euro eta 60 euro eta azkenekoan, 120 euro eta 90 euro.

Hala ere, antolatzaileek adierazi dutenez, lehiaketara aurkeztu eta onartutako lan guztiek 10 euro jasoko dituzte.

Lanak aurkezteko baldintzak honakoak izango dira; 80x60cm-ko neurria izan



Iaz saria jaso zutenek pozik atera zuten argazkia.

beharko dute eta oinarri sendoa. Ez da onartuko aurreko urteetan aurkeztuta lanik.

Banaka zein taldeka hartu ahal izango da parte eta lana aurkezterakoan, gutun-azal itxi batean jasoko da izena, helbidea eta harremanetarako telefono bat. Kanpoko aldean adierazi beharko da zein adin taldean lehiatzen den lana.

Jaiotzak abenduaren 19 eta 20an entregatu beharko dira Danok Kide elkartearen egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13an, 17:00etatik 19:00etara. Jaiotzak ikusgai jarriko dira San Pedro elizan eta sarituak berriz, Muebles Azpeitian. Sari banaketa abenduaren 31n egingo da 12:00etan Danok Kiden.

## IKASTAROA

Taloak egiteko aukera

Dagoeneko gabonak ate joka daude eta San Tomas eguna dela eta, giroten hasteko, Ttakunek talo ikastaroa antolatu du. Abenduaren 13an asteartean egingo da 17:30etik 19:30etara Arrieskalleta elkartearen.

Ikastaroa doan izango da baina bertan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute. 8 urtetik beherako haurrei dagokionean, heldu batez lagunduta joan beharko dela azpimarratu dute antolakuntzatik. Izen emate epea abenduak 2ra arte zabalik egongo da eta posta elektronikoz ([aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus)/[kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)) edota 943 371 448 telefono zenbakira deituta egin ahalko da.

## SAN TOMAS

Postua jartzeko eskaerak

San Tomas arratsaldean azoka egongo da Okendon. Honetan Ttakunek jartzen duen talo postu eta txerriaz gain, azken urteetan herriko hainbat elkarte edo norbanakoek txistorra, salda, tortila edo gozokiak saltzen dituzte haien ekimenetarako dirua biltzeko.

Azokan parte hartu nahi dutenek, abenduaren 12a baino lehen egin behar dute eskaera. Bi baldintza bete behar dira batetik eguneko giroan txertatzea, hau da, baserriarrez jantzia joan eta postua apaintzea eta bestetik, harrera euskaraz egitea.

Postua eskatu nahi dutenek [kultura@ttakun.eus](mailto:kultura@ttakun.eus)-era mezua bidali behar dute.





Ekitaldiaren hasieran, bi mikrokontakizun irakurri zituzten. Argazkia:Txema Vallés



Sari banaketari amaiera emateko, saridunek talde argazkia atera zuten kultur etxeko hitzaldi-aretoan. Argazkia:Txema Valles

## Literatur lanen egile sarituak

### Larunbat eguerdian banatu zituzten aurtengo literatur lehiaketako sariak

**Lasarte-Oriako Udalak urtero antolatzen duen literatur lehiaketako sari banaketa egin zen larunbat eguerdian, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Haur eta gazteen XXIX. lehiaketa izan da aurtengoa eta helduen XXX. edizioa.**

#### TXINTXARRI

Aurtengo Literatura lehiaketak baditu saritu ugari. Larunbat eguerdian jaso zituzten diplomak Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi-aretoan. Haur eta gazteen XXIX. Literatur Lehiaketa eta helduen XXX. edizioa izan da aurtengoa eta aurreko urteetan bezala, lan ugari aurkeztu dira. Jendez, senidez lepo bete zen kultur etxeko aretoa, eta emozio-giroan

gozatu ahal izan zuten parte-hartzaile zein bertaratutako guztiek.

Ekitaldiaren hasieran, Xabier Goitia kultura teknikariaren aurkezpenaren ostean, Maite Iglesias kultura zinegotziak hitza hartu eta Pablo Neruda poetaren 'Poesia' idatziaren zati bat irakurriaz eman zitzaion hasiera ekitaldiari. Parte-hartzaile eta sarituentzako esker hitzak izan zituen jarraian Maite Iglesiasek.

Sari banaketarekin hasi

aurretik, bi irakurketaz gozatu ahal izan zuten ikusentzuleek; Noemí Fernándezek, Iñigo Legorburu egilearen 'Bazterretik' eta Ana Isabel Garcíaren 'Y la vida dió vuelta' mirrokotakizunak irakurri zituen Joseba Pascual gitarra jotzailearen doinuak lagunduta.

Bertaraturakoek gehien espero zuten unea iritsi zen jarraian; diplomak banaketa. Horrela, maila eta kategoria ezberdinetan banatuta, sarituak izendatu eta banabana oroigarriak jaso zituzten kultura zinegotziaren eskutik.

Ekitaldiari amaiera emateko, saridun guztiek talde argazkia atera zuten.



Haur eta gazteen XXIX. Literatur Lehiaketa izan da aurtengoa.

## Reggae musikaren topaleku, bigarrenagoz, Lasarte-Oria

Reggae musika zaletuek parrandarako aukera ezin hobe izan zuten larunbatean, herrian. Bigarren urtez, 'Reggae Fever Fest' musika jaialdia egin zen herriko erdigunean, eta gauean, parrandari jarraipena eman asmoz, Elebeltz

Topagunera leku aldatu eta kontzertuak izan ziren bertan.

Arratsaldeko seietan eman zioten hasiera jaialdiari, Insausti tabernan. Marcos Carnaby eta Runto Seletorra djak aritu ziren bertan arratsaldea girotzen. Soul, 60. hamarkadako Ska Yeye

doinuak, reggae eta musika jamaikarra dantzatu ahal izan zituzten tabernan bildutakoek Galiziako eta Lemoako musika jartzaileen eskutik. Hiru orduko pintxada amaituta, Elebeltz Topagunean izan ziren kontzertuak, gauean.

Iruñatik etorritako Skabidean talde gazteak eskaini zuen kontzertua lehenik eta horien ondoren, Euskatalites talde bilbotarra aritu zen agertokian. Azken hauek, 'The Skatalites' musika talde klasikoaren eta Akatzen abestiak eskaini

zizkieten bertan bildutakoei.

Bi talde hauen kontzertuak amaituta, berriro ere djak aritu ziren. Oraingoan, Artwood69 eta SirGorka musika jartzaileak arduratu ziren arratsaldean hasitako jaialdia goizeko ordu txikiara luzatzeaz.



Dj saioez gozatu ahal izan zen larunbatean, erdigunean. Gauetan, Elebeltz Topagunean izan ziren musika emanaldiak.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51





Irten armairutik!




## Azken lekuko aldaketa



### Jai giro ederra

Ostiralean, bosgarren eta seigarren Ahobizien txanda aldaketa egin zen. Lekuko aldaketa berezia zen. Urriaren 23an, IX. Euskararen Maratoian atzerako kontaktari hasiera eman eta ostiralean azken egunetan sartu zen erronka. Seigarren Ahobizi talde honek, beraz, Lasarte-Oriako herritarrek onartutako apustuari amaiera emango dio. Baina ez dira bakarrik izango, abenduaren 3an, jaialdi ederra antolatu baita Okendo plazan.

Txanda aldaketari dagokionez, ikerketako arlo praktikoa egin, bi Ahobiziren testigantza entzun eta txapa aldaketa egin zuten. Esate baterako, Euskararen Maratoiko zortzikoteko Rebecka Garzesek Enara Iregi eta Oihana Fu Otaegiri eman zien lekukoa. Azken astea jai giro ederrean hasteko Oaintxe in deu txarangako kideek hainbat doinu ekaini zituzten eta kalejira alaian Jalgi Kafe-antokira hurbildu zituzten Ahobizi guztiak. Bertan trago bat eskuan, haien esperientziak partekatu ahal izan zituzten.



Marijo Martinez  
Seigarren txandako  
Ahobizia



Zer lortu nahi duzu esperientzia hau biziarekin?

Hasieratik oso motibatuta egon naiz erronka hau aurrera eramateko. Argi neukan Ahobizi izango nintzela, eta erraza izango zela uste nuen. Orain, astebete aurretik dudan momentu honetan, erronkaren zentzua argiago ikusten dut. Ohitura batzuk aldatu beharko ditut eta hori zaila izan daitekeen arren, ez da ezinezkoa.

Nire kasuan, Ahobiziaren erronka etxean bertan hasten da: ni Ahobizi izango naiz eta senarra Belarriprest.

Beraz, esperientzia hau bizitzeko hitzuntza ohiturari astindu bat eman nahi diot, bai etxe barruan, zein kanpoan. Egia esanda, maratoia hasi zen unetik euskararen erabilera areagotu egin dela esango nuke; bai etxean, baita kanpoan ere.

**Informazioa:** Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

# ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



**14 ETXEBIZITZA BERRI  
ZABALETA BERRIN**

2 LOGELA +12m<sup>2</sup>ko terraza  
**184.000 €tik + BEZ**

3 LOGELA +16m<sup>2</sup>ko terraza  
**199.000 €tik + BEZ**



URBIL MERKATAL GUNEA



ANBULATEGIA



BIDE GORRIA



HAURREN PARKEA



KIROLDEGIA



SANTA BARBARA

**TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN, 100m<sup>2</sup>raino  
BISTARIK ONENAK SANTA BARBARA ALDERA  
ERABATEKO PERTSONALIZAZIOA**

**943 36 89 42**  
**www.zabaletaberri.es**

Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan





## MARATOIA.-

# Lasarteoriatar ugari Donostiako 39. Maratoian

David Cordero eta Anabel Eleno izan ziren azkarrenak 42 kilometroko proban

**Herritar ugari hartu zuten parte atzo jokatu-tako Donostiako 39. Maratoian. 42 kilometroko proba egin zuten askok, baina Maratoi Erdian (21 kilometro) eta 10 kilometroko proban ere izan zuen ordezkari Lasarte-Oriak. Herritarren artean, David Cordero izan zen gizonezko azkarrena, 2:52ko denbora eginez, eta Anabel Eleno emakumezko azkarrena, 3:09ko denborarekin. Hosea Kiprono keniarra izan zen azkarrena.**

## TXINTXARRI

**G**iro freskoa eta eguzkitsua. Igande goiz batean Donostiara joan eta Maratoian parte hartzeko aproposa. Horixe bera egin zuten lasarteoriatar askok atzo. 42 kilometroko proban, Maratoi Erdian (21 km.) zein 10 kilometroko proban aritu ziren.

Hosea Kiprono keniarra izan zen azkarrena, kronometroa 2:11:51ko denboran geratuta. Emakumezkoen artean berriz, Marisa Casanueva kataluniarra nagusitu zen; 2:35:32ko denbora egin zuen. Errekorrik haustea ez zuen lortu inork.

**Herritar azkarrenak**

Lasarteoriatarren artean, David Cordero izan da gizo-

nezko azkarrena, 2:52ko denborarekin. Emakumeei dagokienez, Anabel Eleno iritsi da azkarren, 3:08ko denbora eginda. Iazko marka sei minutu inguruan hobetu du herritarrek.

Hiru orduen langa gaintu dute beste zenbait lasarteoriatarrek ere. Ivan Granadok 2:55eko denbora egin du, eta Borja Romerok berriz, 2:58. Gertu geratu da Aitor Ota-mendi; 3:03 egin du.


Guztira, 28 ziren lasterketa horretarako dortsala zeukaten herritarrek. Urtetik urtera igotzen ari da Lasarte-Oriako parte-hartzaile kopurua.

**Maratoi Erdia eta 10 kilometroko lasterketa**

Donostiako Maratoia ez da soilik 42 kilometroko lasterketa. Distantzia horrek berega-



Herritarren artean, David Cordero izan zen lehen gizonezkoa, eta Anabel Eleno emakumezko bizkorrena.



natzen ditu foku gehienak, baina Maratoi Erdian (21 km.) eta 10 kilometroko proban ere hainbat atleta aritu dira, lasarteoriatar ugari tartean.

Maratoi Erdiko proban, Gorka Gil izan da lasterketa hori egin duten herritarren artean azkarren helmugaratu dena; 1:18ko denbora behar izan du lasarteoriatarrek. 10 kilometroko lasterketan aldiz, Jon Altuna izan da azkarrena 0:36ko denbora eginda amaitu du proba.



Atleta keniarrak izan dira azkarrenak Donostiako 39. Maratoian.

## ATLETISMOA.-

## Lilatoian izena emateko epea gaur ireki da

**D**atorren urteko martxoaren 5ean egingo da Lilatoian 28. edizioa. Oraindik hilabete batzuk falta dira, baina antolatzaileak martxan jarri dira honezkerok. Hori dela eta, lasterketa horretan parte hartu nahi duten emakume guztiak aukera daukate izena emateko.

Otsailaren 15a izango da apuntatzeko azken eguna, edo lehenago agian, ordurako dortsal guztiak agortzen baldin badira. Izen-ematea [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web orrialdean egin beharko da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 28. edizioaren leloa 'Pausoz pauso...ametsak lortuko ditugu' izango da. "Lilatoian filosofian oinarritutako leloa da, horiek ondo baitakite pauso txikiekin emaitza handiak lortzen direla", zehaztu dute. Era berean, nabarmendu dute "sorpresaz



Urtero-urtero, hainbat herritarrek hartzen dute parte Lilatoian.

betetako lasterketa" izango dela datorren urtekoa.

**Entrenamendu saioak**

Lasterketaren eguna iritsi bitartean, Atletico San Sebastian klubarekin elkarlanean, 'Lila-Korrika' izeneko entrena-

mendu saioak egingo ditu Lilatoiak. Lehenengo abenduaren 11n egingo dute, 10:00etan, Atletico SSren Kontxako instalazioetan. Izena emateko, [lilaton@lilaton.es](mailto:lilaton@lilaton.es) helbidera idatzi beharko dute horietan parte hartu nahi dutenek.

## SASKIBALOA.-

## Abendua, herriko saskibaloia hilabetea

Ostadar SKTren saskibaloia alorrek hitzordu oso garrantzitsuak antolatu ditu abendurako. Batetik, 10 eta 11ko asteburuan (larunbat eta igande) kadete mutilen lauko txapelketa bat jokatu da Udal Kiroldegian. Hiru selekzio eta klub batek hartuko dute parte: Euskadik, Galiziak eta Asturiasek; eta Easo SBTk.

Bestalde, urteari amaiera ezin hobea emateko, 3x3 txapelketaren laugarren edizioa antolatu du Ostadar SKTk. Abenduaren 30ean jokatu da, Udal Kiroldegian. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, izen-emate epea irekita dago honezkerok. Interesa daukaten taldeek Ostadarren Geltoki kaleko bulegora joan beharko dute. Bestela, 677 163 751 telefono zenbakira ere deitu dezakete. Adin-tarte guztientzako jokalarientzat tartea dagoela ere azpimarratu dute. Bestalde, jakinarazi nahi dute hasiera batean 20 euroko kuota jarri dutela, kamiseta bereziak egin nahi dituztelako. Dena den, ideia aurrera aterako ez balitz (7-10 egun barru jakingo dute), 10 eurokoa litzateke, iaz bezala.



Iazko 3x3 txapelketa oso arrakastatsua izan zen.



## Agenda

Igandea 4, 12:00etan, Manuel Lekuona Kultur etxea



### Eguberri giroa

Gipuzkoako Eskualde etxeetako elkarteak antolatuta, 'I. Gabon kanta jaialdia' antolatu da. Herri ezberdinetan dauden eskualde etxeetako taldeak eta hainbat gonbidatu izango dira oholza gainean. Lasarte-Oriatik Semblante Andaluz elkarte eta Alboka Abesbatzak parte hartuko dute jailadian. Euskal doinuak eta Andaluzia Erkidegokoak eskainiko dituzte. Doako ekitaldia izan arren, gonbidapena behar da.

Larunbata 10, 17:00etan eta 19:30ean 'Sully' filmaren saio bikoitza eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 11, 17:00etan

Haurren zinema saioan, 'Ozzy' animaziozko filma izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.

Igandea 11, 19:30ean

Helduen zinema saioan, 'Sully' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



### Jaialdia

OKENDO PLAZA

Larunbata 3, 11:30ean

40 eguneko erronkari amaiera emateko jaialdia. Oroigarri banaketa, erronkaren emaitza, Belarriprestak zoriontzeko ekitaldia, 'Atera gara' talde argazki erraldoia... eta hainbat ezusteko izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 3, 18:30ean

Jalgune elkarteko kideek '25 años de imperfección, 10eko jaialdia!' eskainiko dute. Aurretik Udal Musika Eskolako kideek inguruko kaleak alaituko dituzte.

### Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 14, 18:00etan

KontuKantoiko kideek 6-8 urteko haurrei zuzendutako ipuin saioa eskainiko dute.

## Lasarte-Oria

### Genero indarkeriaren aurkako astea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea, 18:00etan

Iratxe Alvarez Eraso sexisten aurkako Emakumeen plataformako kideak 'Jaiak ere gureak dira, indarkeria matxista jaietan eta herritarren mobilizazioen papera'-ri buruz jardungo da.

Ostirala 2, 19:30ean

Emakumeen Zentro Zibikoko M a k e l u r antzerki taldeak 'La eterna



juventud' lana eskainiko du. Sarrera, 3 euro.

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena, 19:00etan

Baketik fundazioak antolatuta, 'Mujeres y procesos de paz: Euskadi y Guatemala' hitzaldia izango da entzungai. Honen barruan 'Ozpinaren sindromea' dokumentala ikusgai izango da.

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala 2, 22:00etan

Okendo Zinema taldearen zine forum

atalean, 'El hombre de las mil caras' filma ikusi eta aztertuko da. Sarrera, 5,50 euro.

Igandea 4, 17:00etan

Haurren zinema saioan, 'Trolls' animaziozko filma izango da ikusgai. Sarrera, 3,80 euro.



Igandea 4, 19:30ean

Helduen zinema saioan, '100 metros' filma izango da ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.

## Herritarren txokoa

### 20. Korrikako materiala

Muntteri-AEK euskaltegiak 20. Korrikako materiala salgai du Geltoki kaleko egoitzan.

Emakume, gizon, zein haurrentzako kirol-jantziak, kamisetak, lepokoak edo txanoak eta agenda ere eskuragarri daude.

Interesa duenak hurbildu dadila Muntteri-AEKra.

### Odol-ateratzea

Gaur, hilabeteko azken astelehenean, azaroaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### 1966. urtean jaiotako enafaria

1966. urtean jaiotako enafaria. El Jardín jatetxean izango da eta izena eman edota informazio gehiago eskuratzeko, Lourdes (667531760) edo Yoli (619522357).

### Aterpeko loteria

Aterpea Merkatarien elkarteak jakinarazten du Gabonetako loteria salgai duela. Interesa dutenek elkarteko establezimenduetan eskuratu dezakete.

### Eskertza



### MILA ESKER AITOR

Orain dela 3 urte etorri zinen liburutegira Pauso Berriak proiektuaren eskutik, Estherrrekin ikasi zenuen liburutegiko martxa eta interesa jartzen zenuenez baita berehala hartu ere.

Denok bezala egun desberdinak izan dituzu, baina beti txintxo eta txukun lan egin aritu duzu. Erabiltzaileekin harremana oso zuzenean eta beti laguntzeko prest.

Gure esker ona Esther, Ane, Marian eta Susanarentzat, beraiekin konpartitu baititugu zure momentu onak eta ez hain onak.

Egun asko, ordu asko, lana, umorea, apuruak, bizitzako gertaerak, e.a. elkarrekin bizi izan ditugu.

Orain gelditu den ixiltasuna arraroa egiten zaigu baina beti bezala aurrera begiratu behar...

Espero dugu zure hurrengo etapan oso ongi joatea eta ez dugu dudarik hala izango dela, langile fina zarelako.

Mila miloi muxu eta eskerrak zure lanagatik eta badakizu, zure bisitaren zain geratzen gara.

Izaskun eta Mainer

**Zuen oharrak jarri,  
kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**  
Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus



# Ahobizi eta Belarriprest-en jaialdi handia

## Larunbatean Okendo jendez bete nahi da erronkari amaiera emateko

Euskararen nazioarteko egunean, larunbatean, Okendo plazan izango da hitzordu berezia 40 eguneko erronkari amaiera emateko. Ekimenaren sustatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte honetan parte hartu eta ikerketaren xedea lortu den ala ez jakiteaz gain, ospakizunaz gozatzeraz.

### TXINTXARRI

**E**rronka handia hartu zuen Lasarte-Oriak urriaren 23an. Euskararen 9. Maratoia bukatzearekin batera, hasi ziren Ahobizien eta Belarriprest-en 40 egunak.

Hasiera batean 3.000 Belarriprest eta 300 Ahobizi lotzea zen helburua, azkenean, 1.927 eta 957 izan dira kopuruak. Azken txanda ostiralean egingo da eta larunbatean, Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, festa handi batekin ospatuko da amaiera.

Errekorreko erronka izan dela diote sustatzaileek eta tamainan ospatu nahi da. Lehenik eta behin gogoratu behar da, aste hauetan Ahobizi eta Belarriprest izan diren guztiak daudela

gonbidatuta honetan parte hartzeraz. Gainera oroigarri bat ere prestatu da guztientzat. 11:30ean hasita mahai ezberdinak jarriko dira Okendon txanda bakoitzeko parte hartzaileek euren oroigarria jaso dezaten.

### Ezusteko asko

Festa 11:45ak aldera hasita aurreikusten da. Zortzikoteko kideek gidatuko dute. Txalaparta doinuekin hasita udala zein Ttakuneko ordezkariek hitz batzuk egingo dituzte. Ezustekoak ere prestatu dituzte zortzikotekoak.

Jarraian, txanda bakoitzeko testigantza batzuk jasoko dira. Erronkak iraun bitartean bizitakoak ardatz. Ostean, erronka gaitu den ala ez azalduko du Pello



6. txanda aldaketa ohi bezala ostiralean egingo da eta parte hartzaile guztiak daude deituta larunbateko jaialdira.

Jauregi EHUko irakasle eta ikerlariak.

Jai giroa jartzeko hainbat dantza eta kantu egiteko aukera izango da eta nola ez, argazki erraldoia egin ondoren, azkeneko, Safri Duo dantzatuko da. Zalantzarik gabe, aurtengo Maratoiaren ikur bilakatu dena.

Eskerrak eman nahi zaizkie parte hartzaile zein laguntzaile guztiei eta hau horrela izanda, deia egiten zaie herritarrei parte hartzeko.



Armairitutik atera gairela ospatu behar dela adierazi dute sustatzaileek.

# Pirritx, Porrotx eta Marri Motots

disco-liburu bikoitza!

TIPI-TAPA, KORRIKA!



HAIZEAREN HERRIRA



+



DVD bikoitza



- \* Amalur ikuzkizuna
- \* Zirika, Irrika... Musika! Musika ari du
- \* Erreportajea: Baserritarra izan nahi dut

Manolo Urbietaren Kanta berriak eta zaharrak



aurtengo uzta!!

Puzlea  
20, 36 eta 50  
piezatak 3 puzle.



Amalur Plaza Ipuina:  
Bildumako 7. liburua



Tipi-Tapa Korrika! Plaza Ipuina:  
Bildumako 8. liburua



EUSKARAZ Bilduma:  
kartoizko 4 ipuintxo